Berria, 04.06.04

Helsinkitik Donostiara

Europako hizkuntza minorizatuetan argitaratzen diren egunkarien elkarteak bilera egingo du Kursaalean gaur eta bihar

AGURTZANE SOLABERRIETA- DONOSTIA

Gaur hasiko ditu MIDASek, Eremu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzetan Argitaratzen diren Egunkarien Europako Elkarteak, bere urteroko bilkura eta 3. batzarnagusia Donostiako Kurssal Jauregian. Aurreko bi batzarrak Bratislavan (Eslovakia) eta Helsinkin (Finlandia) egin zituen. Aurten, ordea, Euskal Herrian egingo da, MIDASeko zuzendaritza batzordeak hala proposatuta eta BERRIAK antolatuta.

Euskal Herria kokaleku gisa aukeratzeko zioen artean, *Euskaldunon Egunkaria-ren* itxiera da nagusiena. Izan ere, nazioarteko elkarteak behin baino gehiagotan salatu izandu euskarazko egunkariaren itxieraren eta bere langileen atxilotzearen zentzugabekeria. Hala, Euskal Herriari eskaini nahi dion arreta bereziaren seinale da antolatzen duen batzarrik nagusiena bertan egitea.

Euskararen egoera aztergai

Jardunaldiotako harrera ekitaldia Euskarazko Komunikazio Taldearen (EKT) lehendakari Joxean Lizarribarrek egingo du. Berarekin bateraere MIDASeko lehendakari Toni Ebner eta Euskal Herriko hainbaterakundeetako ordezkariakizango dira: Donostiako alkate Odon Elorza, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez Txabarri eta EAEko Hizkuntza Politika sailburuorde Patxi Goenaga.

Gaur goizeko saioan Euskal Herria eta euskararen egoera izango dira hizpide nagusienak. Lorea Agirre kazetari eta idazleak begiratu azkar bat emango die euskalgintzaren azken urteei. Ondoren, BERRIAREN zuzendari Martxelo Otamendik *Egunkariaren* itxiera eta BERRIAREN sorrera azalduko ditu. Halaber, parte hartzaileek euskararen datu soziolinguistikoaketahizkuntza eskubideen egoeraren berriere izango dute. Hizlarien artean Behatokiko zuzendari Juan Inazio Hartsuaga izango da.

Arratsaldean, berriz, MIDAS elkarteaz jardungo dute. Lehen orduetan elkarteansartzeko eskaera egin duten egunkariak aurkeztuko dim MIDASeko idazkari Günther Rautzek: alemanezko ***Grenz-Echo*** (Belgika), hungarierazko *Bihari Napló* (Errumania), alemanezko Südtirol*24h* (Hego Tirol), errusierazko *Vesti Segodnya* (Letonia) eta errusierazko *Modolez Estonii* (Estonia).

Arratsaldeko atsedenaldiaren ostean ekingo diote batzar nagusiari eta bertan, besteak beste, urteko programak onartu eta datorren urtekoak hitzartuko dituzte; aurrekontuen gainean ere hitz egingo dute.

Kursaaleko bilerak amaitu ostean, MIDASeko kideak Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkera bisita egingo dute, euskalgintzako enpresak eta BERRIA egunkaria bertatik bertara ezagutu ahalizateko,

Bihar, ateak zabalik

Biharko egunekojarduera irekia izango da. Hortaz, nahi duten guztiek Kursaalerajoan eta MIDASeko hedabideen oraingo errealitatea eta geroko proiektuak zein diren jakiteko aukera izango dute. Izan ere, bihar goizean MIDASeko egunkarien erronka eta egitasmo interesgarrienen berri emango da. Aurkeztuko diren egitasmoen artean honakoak izango dira: Kataluniako Comit kazetaritza taldearen izaera, produktu eta erronkak; *El Periódico de Catalunya*-ren itzulpen sistema; Segre-ren multimedia egitasmoa; Irlandako *La* egunkari berria, *Hufvudstadsbladet-en* (Finlandia) egunkari formatu proposamena eta *Jakobstads Tidningen* (Finlandia) itsu eta ikusrnen urritasuna dutenentzako egunkari zerbitzua. Egitasmoez gain, hizkuntza gutxitu eta eremu urriko hizkuntzen gaineko hainbat hitzaldi eskainiko dira, hala nola, "Hizkuntza gutxituetako egunkarien hedapena Europan" eta "Europaren haztearen eragina hizkuntza gutxituen egunkarietan".

PARTAIDEAK

Batzar nagusian bost egunkariren eskaerak onartuz gero, 31 izango dira MIDASeko kideak

HELBURUAK

Europako instituzioetan eremu urriko hizkuntzetako egunkarien nahien ahotsa izatea

MIDAS 2001eko udaberrian sortuzen, Palma de Mallorcan egindako bilkura batean. 10 hizkuntza komunitatetako egunkarien zuzendariek proposatuta eratu zen, helburu nagusi batekin: hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren egunkarien arteko elkarlana eta informazio trukaketa sustatzea. Era berean, MIDASen helburua Europako instituzioetan eremu urriko eta eskualdeko hizkuntzetako egunkarien behar eta nahien ahotsa izatea da. Hots, hizkuntza gutxituen aldeko ekimenak eta legediak sortzearen alde lan egitea. Hala harremanak ditu, besteak beste, Europako Parlamentua, Batzordea, EBLUL, Eurolang, Europako Kontseilua eta nazio barruko zein nazioarteko berri agentziekin. MIDASen egitekoa da baita ere bere kideen proiektuen laguntzarako ikerketak, babes publikoa eta dirulaguntzak lortzea.

Urtetik urtera MIDASen partaide diren egunkariak gero eta gehiago dira. Egun 26 kide daude, baina gaur bertan beste bost kide berri sartuko dira. Beraz, batzar nagusiak egunkari horien eskaerak onartuz gero, 31 egunkari izango dira MIDASen bazkide. Egunkariek zenbait ezaugarri bete behar dituzte elkartean sartzeko: astean gutxienez hiru egunetan argitaratzea eta gutxienez edukiaren erdia hizkuntza gutxituan idaztea.

Batzar nagusi hau ez da MIDASek Euskal Herrian egiten duen lehen ekimena. Joan den otsailean zortzi egunkaritako kazetariak astebetez izan baitziren Euskal Herrian, MIDASen lehen mintegian. Besteak beste, BERRIA eta Martin Ugalde Kultur Parkea bertatik bertara ezagutu eta euskalgintzako hainbat eragile eta herri mugimenduekin biltzeko aukera izan zuten.



Ongietorriko afaria Europa hotelean

MIDASeko bazkide diren Europako 26 egunkarietako ordezkariak eta batzar honetan onartuko diren beste bost egunkarietako kideak atzo arratsaldean iritsi ziren Donostiara, nazioarteko erakundearen 3. batzar nagusian parte hartzeko. Guztiak Europa Hotelean bildu ziren eta han zituzten zain jardunaldi hauen antolatzaile lanetan ari den BERRIAREN zuzendari Martxelo Otamendi, Euskarazko Komunikazio Taldearen (EKT) lehendakari Joxean Lizarribar eta Administrazio Kontseiluko idazkari Joan Mari Larrarte MIDASeko bazkide guztiak agurtzeko. Afaldu aurretik, guztiak elkar agurtzen eta beren burua aurkezten aritu ziren. Izan ere, batzuk lehendabizikoz hartzen baitute parte MIDASeko urteroko bilkura ho-

MIDASek urrats berriak egin behar dituela diote medioek

Batzarra Euskal Herria ezagutzeko profitatuko dute egunkarietako ordezkariek

Galderak

1. Noiztik da zure egunkaria MIDASeko partaide eta zeintzuk izan ziren MIDASen sartzeko arrazoiak?

2. Zer espero duzu batzar honetatik?

3. Orokorrean, nola baloratzen duzu MIDASen lana?

A.S.-DONOSTIA

Atzo iritsi ziren Donostiara MIDASen batzar nagusian BERRIA-rekin batera parte hartuko duten Europako 30 egunkarietako zuzendari eta editoreak. Elkarrizketatu ditugun lau medioetako ordezkariak topaketa hauek Euskal Herria eta euskal prentsa sakonago ezagutzeko profitatu nahi dutela esan dute.

MARITA GRANROTH (Finlandian suedieraz argitaratzen den Hufvudstadsbladet' egunkariko edizio burua)

«Euskal Herriko komunikabideak ezagutzeko baliatuko **dut** batzar hau»

1. Gure egunkaria hasieratik dago MIDASen. Egoera berean dauden beste hedabideen proiektuak ezagutzeko aukera ematen du elkarteak.
2. Euskal Herriko komunikabideak eta beren proiektuak ezagutzeko aukera paregabea dugu batzar honetan.
3. MIDASeko kide garenon artean informazioa elkartrukatzen dugu, eta bakoitzaren arazoak eta proiektuak ezagutu.

ESTANIS ALCOVER (Kataluniako "EL Punt" egunkariko komunikazio zuzendaria)

«Lobby indartsu bat sortu behar dugu Bruselasen hizkuntza gutxituak lehen mailakoak izateko»

MIDAS ERAKUNDEKO EGUNKARIAK



- **Berria:** Euskal Herria
- **Regió7:** Katalunia (katalana)
- **El Punt:** Katalunia (katalana)
- **Avui:** Katalunia (katalana)
- El 9 Nou: Katalunia (katalana)
- **El Periódico de Catalunya:** Katalunia (katalana)
- **Segre:** Katalunia (katalana)
- **Diari de Balears:** Katalunia
- **Galicia Hoxe:** Galizia (galegoa)
- **La Quotidiana:** Suitza (erretorromaniera)
- **Dolomiten:** Hego Tirol (alemana)
- **Tageszeitung:** Hego Tirol (alemana eta ladinera)
- **Südtirol 24h*:** Hego Tirol (alemana)
- **Primorski Dnevnik:** Italia (esloveniera)
- **La Voce:** Kroazia (italiera)
- **Szabadság:** Errumania (hungariera)
- **Bihari Napló*:** Errumania (hungariera)
- Új Szó: Eslovakia (hungariera)
- **Serbske Nowiny: Alemania** (sorbianoa)
- **Flensborg Avis:** Alemania (daniera)
- **Grenz-Echo*:** Belgika (alemana)
- Lá: Irlandà (gaelikoa)
- **Nordschleswiger:** Danimarka (alemana)
- **Vesti Segodnya*: Letonia** (errusiera)
- **Modolez Estonii*:** Estonia (errusiera)
- **Hufvudstadsbladet:** Finlandia (suediera)
- Nya Aland: Finlandia (suediera)
- **Aland:** Finlandia (suediera)
- **Vasabladet:** Finlandia (suediera)
- **JakobstadsTidning:** Finlandia (suediera)
- **Osterbouringen:** Finlandia (suediera)

ILJA NIKISOROV (Estonian argitaratzen den errusierazko 'Modolez Estonii' egunkariko zuzendaria)

«0rain sartuko gara MIDASen eta elkarteko kide direnei buruzko informazioa bildu nahi dut»

1. Gure egunkaria oraindikez da MIDASeko kidea. Bihar —gaur— egingo den batzar nagusian kide izateko egin dugun eskaera onartzea espero dugu. Besteen ideiak, proiektuak eta materialak ezagutzea eta gure egunkarira eramateko aukera izan nahi dugu gure partaidetzaren bitartez.
2. Kazetaria naizenez, Euskal Herriari buruzko artikuluak egin nahi ditut. Espainiako Gobernu aldaketak eragin dituen aldaketak ere aztertu nahi ditut. Hori egiteko eskatu didate hango kazetariek.
3. Estoniara MIDASi buruz oso informazio gutxi iristen zaigu. Horregatik, jardunaldi hauetan elkarteko diren egunkariak ezagutzeko aukera izango dut.

1. Elkartea sortu zenetik gara bertakopartaide. Estatutuen erredakzioan parte hartu genuen. Guretzat oso garrantzitsua da Europan hizkuntza gutxituetan eta eremu urrietan argitaratzen diren egunkarien artean lobby indartsu bat sortzea, Bruselasen hizkuntza horiek lehen mailakoak izateko. Gauregun 2. mailakoak gara.
2. Behingoz MIDAS abian jarri behar da, lehen aipatutako helburu hori lortzeko. Orain arte elkar ezagutzarako lan ona egin du, baina orain urrats berriak emateko ordua iritsi da.
3. Orain arte lan garrantzitsua egin du indarrak batzen

LARS ROSENBLAD (Finlandian suedieraz argitaratzen den 'Vasabladet' egunkariko zuzendaria. MIDASeko zuzendaritza batzordeko kidea)

«MIDASek azken urte hauetan egin duen lanaren emaitza orain ari gara ikusten»

1. Gure egunkaria MIDASen sortze prozesuan hartu zuen parte. Bazkide sortzaileetako bat gara. Europan hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren egunkariak batzeko eta elkarlana sustatzeko beharra ikusi genuen. Hala, Europako Batasunaren aurrean gure ahots propioa edukitzeko.
2. Jardunaldi hauek Euskal Herria, euskararen egoera eta euskaldunen proiektuak ezagutzeko baliatu nahi ditut. Halaber, MIDASeko beste kideak ezagutzeko aukera izango dugu.
3. MIDASen lana pixakana-pixkanaka hobetzen ari da eta indarra hartzen ari da. Azken urte hauetan egin dugun lanaren emaitza orain ari gara ikusten. MIDASek honakoa eskain dezake, batez ere: antzeko egoeran bizi diren beste hizkuntz komunitateak ezagutzea eta haiengandik ikastea.

Egitaraua

EKAINAK 4, 0STIRALA

09:00-10:30: Hasiera ekitaldia. Aurkezlea: Jose Mari Pastor, BERRIAKO erredakzioburua.

• Ongietorri ekitaldia:
-Joxean Lizarribar, EKTko lehendakaria.
• Odon Elorza, Donostiako alkatea.
-Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia.
- Patxi Goenaga, EAEko Hizkuntz Politikako sailburuordea
- Toni Ebner, MIDASeko lehendakaria.
• Begiratu azkar bat euskalgintzaren azken urteei. Hizlaria: Lorea Agirre kazetari eta idazlea.

10:30-11:00: Atsedenaldia.

11:00-11:45: *Egunkaria*-ren itxiera eta BERRIAREN sorrera. Hizlaria: Martxelo Otamendi, BERRIAKO zuzendaria.

11:45-12:15: Euskararen hainbat datu soziolinguistiko (Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Jarraipena III).

12:15-12:45: Euskararen hizkuntza eskubideen egoera. Hizlaria: Juan Inazio Hartsuaga, Behatokiko zuzendaria.

12:45-13:00: Solasaldia.

15:00-16:30: MIDASeko kide berrien aurkezpena. Aurkezlea: Günther Rautz, MIDASeko idazkaria.

• *Grenz-Echo* (Hizlaria: Heinz Warny, zuzendaria).
• *Bihari Napló* (Hizlaria: Josef Kogler).
• *Vesti Segodnya* (Nick Kabanov, kazetaria).
• *Modolez Estonii (Ilja* Nikiforov, zuzendaria).
• Südtirol 24h (Magda Amonn).

16:30-17:00: Atsedenaldia.

17:00-18:30: MIDASen Batzar Nagusia. Aurkezlea: Lars Rosenblad.

19:00: Bisita Martin Ugalde Kultur Parkera.